

ASSATA

Gutxirekin asko esaten duen jendea gustatzen zait.

Assata gustatzen zait.

Assata Shakur Pantera Beltzak alderdiko ekintzaile estatubatuarra izan zen eta, geroago, bat egin zuen Askapen Beltzeko Armadarekin (Black Liberation Army). Jazarri, atxilotu, torturatu eta espetxeratu egin zuten. Baina espetxetik ihes egitea lortu eta Kuban asilo politikoa eman zioten.

20 urtez Anger taldean aritu ondoren, proiektua lozorroan sartu eta bi urteko isiltasunaren ostean, arrasatearrak itzuli egin dira; gorroto gutxiagorekin eta argitasun gehiagorekin, izaera politiko berberarekin eta beraien letren bereizgarri den adimen poetikoaren izpirik ere galdu gabe. Itzuli egin dira eta dantzaz gain jendea libreagoa den klub klandestino usaina dakarte. Besteen jakinduriatik edaten dute eta busti ezezik, blaitu egiten dira. Zikintzeari utzi gabe, beste garai eta leku batzuk gogorarazten dituzten erritmoei argia txertatzen diete errespetuz eta umiltasunez berauenak eginez.

Lagunez inguratu dira grabaketan eta etxea Shot! estudioan aurkitu dute, Iñaki Bengoa maisua hemengo eta hango soinuak uztartzen trebea dela eta merezi duten bezala distiraraziko dituela jakinik.

Assata, taldearen izena bera bezala, izenburu zintzo eta argigarria duen disko batekin jaio da: "Dantzatu, madarikatuok!".

Izenburu honek bere erraietan aurkituko dugunaren berri ematen du. Erreferentzia argia da: 1930eko hamarkadan Estatu Batuetan girotutako filmara eramaten gaitu. Jende pobretuak hil arte dantzatzen zuten. Sari ekonomiko bat lortzeko eta krisiak pairatu ez eta eragiten zituztenak gozatzeko lehiatzen ziren.

Erreferentzia horrek gogoeta egitera gonbidatzen gaitu gure hariak maneiatzen dituztenei buruz eta aldi berean, beste batekin lotzen gaitu: "Ezin badut dantzatu, ez zait interesatzen zure iraultza". Hala erantzun zion Emma Goldman feminista libertarioak seriotasunik eza aurpegiratzen zion burkide bati. Goldmanek ezinbestean ahizpatzen zituen alaitasuna eta politika, gozamina eta borroka, dantza eta iraultza, bezalako kontzeptuak esaldi batean maisuki bateratzen zituen.

Hau da Assata.

"Dantzatu, madarikatuok!" hau duintasunaren dantza dela ondoriozta genezake, maskararik gabeko dantza, indarrez ebatsiak izan direnen dantza, heriotzari espazioa lapurtzen dion bizitzaren dantza madarikatua; dantza defentsa legitimo gisa, izateagatik borrokatzen dutenen mendekuaren dantza. Assata ez dira haiek, ez zu, ez ni.

Assata jario askatzaile eta freskoa da. Bere kideak, arrotza bezain berezkoa, hurkoarena bezain erraietakoa den aldarrikapen bat helarazteko bitartekoa bihurtzen dira. Erresistitzen duten herrien aldarrikapena, guztiona dena. Assata abesten duenaren oihu argia da, betiere, bere urratsak bere distira basatiaren menpe uzten badira.

La Furia



Abesti zerrenda:

1. Neoizko isiltasuna
2. Egologista
3. Salgai nago
4. Esker oneko esklabuak
5. Zenbat pisatzen du gure kontzientziak?
6. Hiritarrak
7. Ongi etorri dantzaldira

Grabaketa eta nahasketak:

Iñaki Bengoa
Shot! Grabaketak (Arrasate)

Masterizazioa:

Jonan Ordorika

Diseinua:

Unai Bergara (www.lubakigrafik.com)

Haremanetarako:

660 65 98 30 (Jokin)
info@assata.eus

Twitter: @AssataTaldea

Instagram: [assata_taldea](https://www.instagram.com/assata_taldea)

Bandcamp: [assatataldea.bandcamp.com](https://bandcamp.com/assatataldea)

ASSATA

Me gusta la gente que dice mucho con poco.

Me gusta Assata.

Assata Shakur fue una activista estadounidense del Partido Panteras Negras que más tarde se unió al Ejército de Liberación Negro (Black Liberation Army). Fue perseguida, capturada y torturada para acabar huyendo a Cuba donde recibió asilo político.

Tras 20 años de Anger, y dos de silencio, los 5 de Arrasate vuelven, con menos odio y más luces, con el mismo carácter político y sin perder ni un ápice de la inteligencia poética que caracterizaba sus letras. Vuelven y traen danza y Dance y olor a club clandestino donde la gente es más libre. Beben de la sabiduría de otras y se impregnan y se mojan. Sin dejar de mancharse incorporan luz a unos ritmos que recuerdan a otra época y otros lugares pero que con humildad y respeto hacen suyos.

En la grabación se rodean de amigas y amigos y buscan casa sabiendo que Shot! es el estudio y que Iñaki Bengoa es el maestro cuya habilidad en el maridaje de sonidos de aquí y de allá es capaz de hacerlos brillar como merecen. Assata nace con un disco cuyo nombre, al igual que el del propio grupo, se presenta sincero y revelador: "Dantzatu, madarikatuok!"

Este título da cuenta de lo que vamos a encontrar en sus entrañas. La referencia es clara, nos remonta a aquella película ambientada en Estados Unidos en los años 30, en la que gente empobrecida bailaba hasta la muerte, compitiendo por un premio económico y para el disfrute de aquellos que no sufren las crisis, sino que las provocan.

Esta referencia nos invita a la reflexión sobre quienes manejan nuestros hilos al tiempo que nos conecta con otra... "Si no puedo bailar, tu revolución no me interesa." Así contestaba la feminista libertaria Emma Goldman a un compañero de lucha que le reprochaba por bailar su falta de seriedad. Magistralmente, Goldman aunaba en una frase conceptos tan necesariamente relacionados como alegría y política, disfrute y lucha... baile y revolución.

Esto es Assata.

Podríamos concluir que este "Dantzatu, madarikatuok!", es el baile de la dignidad, el baile sin máscaras, la danza de quienes han sido expoliadas y expoliados, la danza maldita de la vida robándole espacio a la muerte, el baile como legítima defensa, el baile de la venganza de quienes luchan por ser. Assata no son ellos, ni tú, ni yo.

Assata es un fluir liberador y fresco donde sus miembros pasan a ser el medio a través del cual trasladar una reivindicación tan ajena y tan propia, tan de otras y tan de entraña... Tan de pueblos que resisten, que es de todas y todos. Assata es el grito lúcido de quien lo entone, siempre que sus pasos se dejen llevar por su brillo salvaje.

La Furia



Lista de canciones:

1. Neoizko isiltasuna
2. Egologista
3. Salgai nago
4. Esker oneko esklabuak
5. Zenbat pisatzen du gure kontzientziak?
6. Hiritarrak
7. Ongi etorri dantzaldira

Grabación y Mezclas:

Iñaki Bengoa
Shot! Grabaketak (Arrasate)

Masterización:

Jonan Ordorika

Diseño:

Unai Bergara (www.lubakigrafik.com)

Contacto:

660 65 98 30 (Jokin)
info@assata.eus

Twitter: @AssataTaldea

Instagram: [assata_taldea](https://www.instagram.com/assata_taldea)

Bandcamp: assatataldea.bandcamp.com